


# «Gure gaztetxoak itzultzaile handiak»

Ba al dakizu euskaraz irakurtzen dituzun liburu asko ez daudela jatorriz euskaraz idatzita?

Ba al dakizu nork eta nola itzultzen duen liburu hori euskarara?

Probatu nahi al duzu?

Zatoz “Gure gaztetxoak itzultzaile handiak” tailerrera eta itzultzaile bihurtuko zaitugu arratsalde batez.



**Zer:** Gazteak itzultzaile lanetan ipintzeko tailerra. “Tximeleta-belarriak” liburua itzuliko dute gaztelaniatik euskarara.

**Nork:** Patxi Zubizarreta idazleak aurkeztua; Fernando Rey itzultzaileak gidatua.

**Norentzat:** 10-11 urteko gaztetxoentzat.

**Noiz eta Non:** Urtarrilaren 29an, 17:00etan, Donostiako San Telmo Museoan, Badu Bada erakusketako egongelan.

**Izen-ematea:** Galtzagorri Elkarteak, [galtzagorri@galtzagorri.org](mailto:galtzagorri@galtzagorri.org) helbidera idatzita. Lekua mugatua da, 20 lagun onartuko dira soilik.

**Antolatzaileak:**

**EIZIE**  
euskaraz itzultze, zuzentze eta interpretazio elkartea

